

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Lumumba: atxilotua, hautatua, hila



KONGO BELGIKARRA, 1959KO AZAROAREN 1A. Belgikako ejertzito kolonialak Kongoko Mugimendu Nazionalen buru Patrice Lumumba (1925-1961) atxilotu zuen, herritarrak indarkeriara bultzatu izana leporatuta.

Bezperan Stanleyvilleko –egungo Kisangani– aldirietan egindako mitinean, Lumumbak “belgikarren okupazioa bertan behera uzteko mobilizatzeko” deia egin zien afrikarrei. Europarrek ezarritako erregimena eta Kongoko bertako politikarien epelkeria gogor kritikatu ondoren, herrialdearen berehalako independentzia eskatu zuen. Hitzaldia bertaratutakoek behin eta berriro errepikatuko zuten leloaz amaitu zuen: “Kolonialistekin kolaboratzeari ez; desobedientzia zibilari bai”. Gainera, Stanleyvilleko alkateak ez zuen ekitaldirako baimenik eman. Belgikarrek aitzakia andana zuten politikari nazionalista atxilotzeko.

Hala ere, ekitaldiaren ondoren jarraitzaileek Lumumba atxilotzea saihestu zuten indarrez, eta soldadu belgikarrei aurre egiten saiatu ziren

SESBko 1961eko zigilua. Buruzagi kongoarra hil zutenean, sobietarrek haren omenezko seilu hau egitea erabaki zuten.

eskura zuten edozer baliatuta: makilak, lantzak, geziak, harriak... Jendarmeak tiroka hasi ziren orduan. 30 lagun inguru hil zituzten, eta ehunka zauritu. Belgikarren aldean, aldiz, hamalau zauritu arin baino ez ziren izan. Lumumba biharamunean atxilotu zuten. Kongo Belgikarreko krisia arindu orde, neurriak tentsioa areagotu zuen.

Sei hilabeteko kartzela zigorra ezarri zioten 1960ko urtarrilaren 21ean. Baina ordurako belgikarrak independentistekin hitz egiten hasiak ziren, koloniaren egoera larria zela eta. Handik bost egunera Lumumba askatzea eta harekin zuzenean negoziatzea erabaki zuten. Ezustean, Belgikak Kongoren independentzia onartu zuen. Baina keinuak ez zuen Lumumba bigundu; independentzia hitzaldian tinko kritikatu zituen belgikarren gehiegikeriak.

1960ko ekainaren 23an Lumubaren alderdiak hauteskundeak irabazi zituen eta bera izan zen Kongo independenteko lehenengo lehen ministroa. Baina irailean Kasavubu presidentek Lumumba eta gainerako ministro nazionalistak kargugabetu zituen eta, abenduan, Mobutuk estatu kolpea jo zuen, CIAren eta belgikarren babesaz (Gerra Hotz betean, SESBk Lumumba babestu zuen). 1961eko urtarrilaren 17an exekutatu zituzten Lumumba eta haren alderdiko hainbat buruzagi, besteak beste agente belgikarrak eta estatubatuarrak lekuko zirela.

2006ko hauteskundeetara arte, Patrice Émery Lumumba Kongoko Errepublika “Demokratikoan” libreki aukeraturako lehen ministro bakarra izan zen.

Arrastoak

Murillo gaztea
Bilboko Arte
Eder Museoa

MURILLOREN (Sevilla, 1617-1682) gaztaroko 50 obra inguru bildu ditu Bilboko Arte Eder Museoa, urriaren 19an hasi zen eta datorren urteko urtarrilaren 17ra arte iraungo duen erakusketan.

Garai hura funtsezkoa izan zen margolariaren karreraren. 1640 inguruan, Murillok bere lehenengo arrakasta izan zuen, eta goranzko karrerari ekin zion. Hasierako garai hartan tenebrismoan eta naturalismoan oinarritutako obrak egin zituen, eta aurreko belaunaldiko maisuen, hala nola Zurbaran eta Riberaren eragina agerian utzi zuen, batez ere argien kontrasteetan eta materialen tratamenduan.



Bi mutiko meloi eta mahats jaten margolana (c. 1650)
Municheko Alte
Pinakothek-etik ekarri
dute erakusketara.